

4.DIRU-ITURRIAK

Hiru merkatu-arlo ezberdinetan eskaintzen ditugu; segurtasunean, teknologia berrietan eta bitxigintzan (diseinu ezberdinekin). Eratzuna urte bateko garantia edukiko luke, eta edozein arazo edukiz gero, mantenimendua dohainik eskainiko genuke. Gainera, hura jasotzerakoan, kargagailu batekin etorriko zen, eratzuna beti batera beteta edukitzeko.

SecuRing erosiz gero, 50 euroko inguruko prezioa izango luke, garantia eta kargagailua barne, baina ere bai posiblea izango litzateke eratzuna bakarrik erostea (noizbait galdu ba duzu) 45 eurotan edo bakarrik kargagailua erostea, 5 eurotan, baldin eta eratzunarekin batera erositakoa apurtu egin ba da. Dena dela eta, bihotzez uste dugu beharrezkoa ez dela izango, norbait gure produktua erosi egiten ba du, beldurra daukalako da, eta horregatik dakigu oso ondo zainduko luketela norberaren eratzuna.

Gure produktua ezagutzera emateko, pixkanaka joango ginateke. Hasieran irratian eta egunkarrietan gure produktua iragarriko genuke eta hortik aurrera eta haren garrantzia jakinda, ahoz aho zabalduko zen ziur. Beharrezko dirua lortu ondoren, telebistan eta autobuseko geltokietan eratzunaren publizitatea jarriko genuke. Horrela, gero eta jende gehiago SecuRing ezagutuko luke, eta gero eta jende gehiago edukiko luke bat, seguru sentitzeko asmoz.